

# ARTIXTAK

Ergel bat zen. 55 urteak bete eta amen-amen egingo zion gazte-jendeaz —hobe emakumeak— inguratua behar zuen horietako lerdoa. Artista-usteko bat. Satelliteak inguruan orbitatzen behar zituen astroa. Ñir-ñir beharrea ni-ni-ni egiten zuen izar dekadentea: nire lana, nire artea, nire estiloa, nire begirada... gizajo eta erdi bat. Picassok txikia zuen eta ez zekien margotzen. Amen, bada, maisu!

Bai, halaxe da, babo guziak molde berekoak dira, txantilo bera erabilia egiten dituztela dirudi, sinatutako kopia seriatuak balira bezala. Baina honek dezentezko txortaldia zuen eta, zer nahi duzue esatea, aguraren usainak beti jarri nau bero-bero. Zer egingo diogu, bada, amen ez bada!

Azken batean, beti izan naiz exhibizionista samarra; tira, besteek niri begiratzea gustuko dut. Horrexegatik esan nion baietz modelo bila zebilen pinturako klase hartako anuntzioari. Eta, jakina, hortik irakaslearen oherako bidea zuzena da. Gainera, diru-premia nuen eta, behingoagatik, pinturaren historia txit gorenean, izan zedila modeloa artistaren kontura biziko zena.

Pinturako klase hartan denetarik zegoen: pintore frustratu batzuk, bodegoiak maite zituzten etxeoandreak, garai bateko bohemiaren nostalgiko pareta eta, nola ez, esku abileko voyeur lizunak, gazte berde nahiz agure gordinak, lesbianaren bat tarteko.

Denen begiradak nabaritzen nituen nire larruari iltzatuta. Pintzel bilakatutako soak lepoan behera lepauztaietan pausatzen ziren lehendabizi, bularren arteko erretenean kulunkan titien geometria borobiltzen zuten, eta titiburuen ilunari erreparatzen zioten.

Zilborra saihestu eta Venusen mendian behera irristan, osin beltzera erori eta bilo bihurrietan kiribiltzen ziren. Eta bidea eragozten zieten sasitza garbitu eta izterrekin borrokan nabaritzen nituen, kutun gordean sartu eta galtzeko gero.

So galduak ziren batzuk, herabeak eta lausotzen hasiak, so lapurtuak, beste aldera apal begiratzen zutenak nik beha atzematen nituenean. So lizun, likits eta haragikoiak ziren besteak, nire begiradari erronkaz eusten ziotenak. Begirada guztiek jotzen zidaten larrua, pintzelaz egiten zidaten amodioa lehenek, bigarrenek zurdakia zuloetan sastakatuz bortxatzen ninduten.

Eta gizajo horiek imajinatzen nituen, etxearen iluntasunean, galtzak beheratuta isipuari eragiten. Mihisearen aurrean, inongo musek inspiratuta, hazi zarrastaz beren Mona Lisa partikularrak margotzen, garai batean aldizkari pornoetako modelo haiekin egindako opera primetan bezala. Marra lodiz, ñabarduretan galdu gabeko pintzelada azkarren urgentziaz sortutako artelanak.

Gaixoak. Begirada-ehizak berotzen ninduen eta are gehiago haien ezinegona sumatzeak nire izter arteko zokoak diz-diz egiten zuela erreparatzen ziotenen. Usain bereziak hartzen zuen orduan estudioa, sexua eta olio nahasten zituen sunda sarkorra.

Ordu arte astoz asto, ikasleen lana zuzentzen ibilia zen Mixel. Argiaren tratamendua zela, perspektiba, konposizioa, proportzioa... sekula ez zegoen konforme... Eta orduan, giroa bero-bero zegoenean, klasea amaitutzat ematen zuen, han artista nor eta modeloa zeinena zen argi utziz.

Eta estudioa libratuta bakarrik gelditzen ginenean, papera zabaltzen zuen zoruan. Ni ahoz gora etzaten nintzen, zain, hura biluzten zen bitartean. Lurrean hamaika pintzel eta pintura-poto paratzen zituen, artilleria.

Eta pintzela eskuan, titiburuak ferekatzen hasten zen lehendabizi, xuabe-xuabe, areola ilunak borobilekin inguratuz, tentetutako muinotxoak goxo-goxo eskobatzuz gero. Libre zuen eskuarekin bular hanpatuen ingurua lerro ikusezinez marrazten zuen. Hatz erakuslearekin aho ingurua delineatzen zuen nire listuaren tintaz, pintzelak sabelerako bidea hartzen zuen bitartean. Bizkarra kakotuta izterrak zabal-zabal eginda eskaintzen nintzaion intzirika. Pintzelak, hirukian behera desagertu aurretik baina, gora egiten zuen berriro, zilbor inguruan ikertzeko. Saihets arteko zerrendak marrazten zituen orduan, batere presarik gabe, eta ni itotzen nintzen, arnasestuka, pintzelaren hari bakoitzaren ibilgua sentitzen bainuen nire azalean, erretzen, golde batek egindako ildoak bailiran. Eta busti-bustia nengoenen, pintzela nire hankartera eramanda, arrakala umela inguratzen zuten ezpainak igurtziz blaitzen zuen, gora eta behera, gora eta behera, sabelpeko bilo beltz kiribilak ziprztinduz diz-diz egiten zuten ihintz tantekin.

Zoraturik, burua galduko nuela sumatzean, begira-begira gelditzen zitzaidan eta, eskuak pintura potoetan sartuta, aurretik nire gorputzean irudikatutako bozetoa koloreztatzen hasten zen. Parez pare belaunikatuta, eskuak margo, gorputzak mihise bihurtzen genituen elkarri igurtzita. Eta paperean bilduta jotzen genuen larrua.

Mixelen galeristak ezin sinetsita begiratzen zien formatu handiko koadro berri haiei. Komisario ezagun batek erakusketa antolatu nahi zuen museo ospetsu batean. Arte-kritikariak zorutzen zeuden, eta tankera hartuta ezinik era berean. Hain zen estilo ezberdin eta berritzailea Mixelena, ezin asma zebiltzala testura, kolore eta forma haien egikeraren

jatorria zein ote zen, zein izan ote zitekeen teknika. Koadro haiek egiten hartutako lan handia zuten ahotan, artistaren gizartearekiko eskuzabaltasuna. Sailkaezina zen, abangoardia, ARTEA.

Eta Mixel jasanezina zegoen. Ospea gauza sotila baita, eta artistaren hiltzeko beldurra, izugarria. Hor konpon esanda utzi nuen, lan kolektibo baten egiletza esamoldeko zein hitz ulertzen ez zuen jakin gabe.

Artistekin eta kito egitea erabakita neukala ezagutu nuen bera. Egia esatera, Mixelen —eta bion— lanekin egindako erakusketa batean aurkeztu zidan Mixelek berak. Eskultorea zen. Arte txikia inondik ere, ezin baita pinturarekin konparatu. Amen, bai.

Ez zuen sekula Arte Ederren eskolarik zapaldu. Artisaua zela eta ez artista esaten zuen. Artisaua, garai batean bezala. Eskulangilea, haren lanabesak eskuak zirelako, eta ez zelako inor baino gehiago. Gero zetorren teknika eta formarekiko kezka eta sorkuntza-lana... baina ez zeukan bere burua artistatzat.

Haren esku handiei begira gelditu nintzaien eta nire aldakei helduta irudikatu nituen, nik gainean hankalatraba zamalkatzen nuen bitartean. Inoiz bere estudioa joateko gomita egin zidan, haren lana ezagutu nahiko nukeela esan nionean.

Eta orain hemen nago, urduri, lotsatuta, biluzik, haren estudioaren erdian.

Iritsi naizenean tornuan ari zen lanean, pitxar bat egiten edo, hankarekin eragiten zaion errotan. Buztingile-eskuak, liluratuta gelditu naiz lurrez zikindutako haren eskuei begira. Behetik gora hasita, pitxerraren sabel ganbila nola sortzen zuen, esku abilez nola goratu duen pareta bat segundo gutxi batzuetan, nolaz sortu duen pitxerraren lepo estua eta zabaldu dion ahoa. Zorabiatu naiz ia, eta busti, gurpil horretan jirabiraka ari zena ni nintzela

irudikatu dudanean, buztinaz blaitutako esku horiek nire gorputza moldeatzen zutela imajinatzean.

Dardarka nago. Hotzari egotzi dio eta barkamena eskatu dit, berogailu zahar bat gerturatuta, estudioa umela eta hezea dela, buztinak hala behar izaten duelako.

Ni iristerako, landu behar zuen buztin-blokeari zatirik handienak kenduak zizkion eta maindire busti batekin estalia zuen; buztina ez lehortzeko, argitu dit.

Eskuak aldamenean duen konketan busti ditu berriro. Kontzentratuta dago buztin-blokea lantzen. Une batez jeloskor sentitu naiz bloke bizigabe horrekin, zetazko eskuekin amodioa egiten ari baitzaio hari, parean nauen gorputzari erreparatu gabe.

Behingoagatik ni naiz inori begiratuta berotzen ari dena, haren eskuen ibilbidea jarraitzeak kitzikatzen nau, abilak eta azkarrak dira. Gorputz-enberrari forma ematen ari zaio, aldaken simetria eta sabel borobila, eskuak alboetatik goratuta gerri estua moldatu du, eta ia erori naiz aulkitik haren eskuak titiei forma ematen hasi direnean. Ausikia nabaritu dut sabelpean, hatzekin buztinari atximur eginda titiburuak sortu dituenen. Bere Eva partikularra egiten ari den jainko txiki bat dirudi. Adanen beharrik ez duen jainko txiki jostagarri bat.

Eta begiak itxi ditut eta buztin-blokearen barnean preso nagoela irudikatu dut, ni naizela Eva, haren eskuek sortu eta bizia eman behar dioten Eva. Irudia hain da erreala. Estudioaren erdian, argi-ilunpetan zain nago, zetazko oihal bustiak estalia. Ehun hezea larruari itsasten zait, bularrek gotortutako muinoak dirudite, titiburuak gogor eta zut hotzaren hotzaz. Eta orduan nabaritzen ditut haren esku-ahurrak nire bularrak biltzen,

berotu nahian bezala. Eta oihala kenduta, belusezkoak diruditen esku horiekin hasten da ni modelatzen.

Titiburuak bere gustukoak direnean, bular oparoak borobiltzen dizkit. Eta larruazala lehortzen ari zaidala konturatuta, mingainarekin zoko guztiak txistuaz blaitzen hasten da. Eta nik haren burua nire sabelpean atxiki nahiko nuke, nire hatzak haren ilean kiribilduz. Baina ez dizkit besoak egin, ez dit oraindik bizitzarik, hatsik eman. Eskuak busti ditu berriro eta indarrez oratu die nire ipurmasailei forma emateko. Aldakekin hasi da gero, eta izterren goi-partearekin. Hiruki baten bi aldeak irudikatu ditu, eta aurpegia izter artean ezkutatuz miazkatu dit sabelpea. Hatz bat uretan busti eta mantso-mantso, fereka baten gisan irristatuz, hirukiaren beheko erpinean ildotxo bat egin du. Bortitzagoa izan da hatzaren urradura hankartean galdu eta arroila gisa zabaldu denean.

Orduan oihu egin dut. Eta bere baitan bildua dagoela begiratu dit, zer gertatzen den ezin igarrita. Nire izterrak estuki itxita ditut, sortu berri duen arrakalari darion elderra antzeman ez dezan. Pega-pega eginda eta itsatsita, hankak zabaldua estudioan barreia daitekeen sexu-usainaren bafada saihestu nahian.

Nekatuta baldin banago etenaldia egin dezakegula esan dit, baina ezetz esan diot, jarraitzeko lanean.

Begiak itxi ditut eta nire jainkoaren eskua sumatu dut nire alu egin berrian aztarrika. Mela-mela eginda nago, biguna eta malgua naiz. Eta haren hatzak nabaritu ditut nire barruko paretak eraikitzen, leize umel eta epela sortzen. Barrunbe bat nire barruan.

Orduan biluztu eta lurrean etzan da. Bere ahoaren gainean ipini nau hankalatraba eta mingainez busti. Gora eta behera, gora eta behera korritu du nire sabelpeko ahoa eta bere

listua nire lirdingarekin nahastu denean, bere hankarteko tornuaren ardatzean ipini nau eta bizia eman dit. Eta zamalkatu dut ero moduan, bizia horretan balihoakit bezala, eta ni eta beste hamaika pieza esmaltatzeko adina muki sortu dut. Eta haziz bete nauenen, argizariz egindako molde bat baino ez nintzela sentitu dut, urtu egin bainaiz, ito, nire oihu eta intzirietan.

- Ez bazara geldirik egoten ezin dut lanik egin.

Coitus interruptusaren modukoa izan da, eta apurtu da zeozer nire barruan.

Hurrengoan benetako artistaren batengana arrimatuko naiz, aktoreren batengana edo.